

**ehbildu**

# **EH2040**

## **Agenda ekosoziala**

### **Hogei bektore eraldaketa ekosozialerako**

Gaur zutik jarri eta beren lehen pausuak ematen ari diren umeak 2040an iritsiko dira adin-nagusitasunera. Krisi ekologikoak zeharo baldintzatuko ditu beren bizimoduak, horretan ez dago zalantzarik. Baldintzapen horren zenbatekoa eta nolakotasuna da jokoan dagoena, neurri handian datozen urteetan.

2040rako Euskal Herria sakonki eraldatuko da, maila askotan. Horretan ere ez dago zalantzarik. Aldaketa handiak datoz eta gure gizarte-antolamenduaren atal askori eragingo diete. Aldaketa horren norabidea da jokoan dagoena, neurri handian datozen urteetan.

Horregatik, norabidea finkatzeko momentua da, ez dago denbora galtzerik. Klima-larrialdiari, biodibertsitatearen krisiari eta energia-krisiari Euskal Herritik nola erantzungo zaion, hori da, zalantzarik gabe, herri honek bere historian aurre egin behar izan dion erronkarik handienetakoa.

Ondorengo hogei eraldaketa-bektoreak dira, gure ustez, gaurtik martxan jarri beharrekoak. Ondoko agenda da, gure ustez, eztabaida politiko eta sozialaren erdigunera ekarri beharrekoa. Etorkizuneko agenda bat, etorkizun desiragarri bat marraztu dezakeena, esperantzari lotzen gaituena; agenda bat euskal proiektu nazionalak bere egin beharrekoa:

1. Erregai fosilekin lotutako inbertsio eta azpiegiturak alboratzea: Hamarraldi honetan bertan erregai fosilen azpiegiturekin lotutako aktibo publikoak desinbertitzeko planifikazio bat osatzea. Ikusi dugun bezala, erregai fosilen erabilera alboratzetik urrun gaude, eta hauxe da, hain zuzen ere, trantsizioaren lehen premisa.

2. Sektore publiko indartsu bat sortzea, trantsizioa gidatzeko gaitasun publiko finantzarioa izango duena etorkizun ertainean, orain arteko ikuspegi neoliberalak alboratuz (EHN eta Eólicas de Euskadirekin gertatutakoa gogoan): Trantsizioa gauzatzeko eta gizarte-sektore zaurgarriak babesteko interbentzio- eta finantzazio-tresna publiko bat osatzea. Halaber, berrikuntza teknologikoa eta soziala sustatzeko bulkada publikoa artikulatzea, egungo euskal ezagutza-sistemeekin kooperazioan jardungo duena.
3. Produktu, ondasun eta zerbitzuen birlokalizazioa sustatzea. Besteak beste, produktuen egokitasuna baloratzeko orduan, karbono-aztarna kostu gisa eta karbono-aztarna murriztua pizgarri gisa kontsideratzea.
4. Kontsumo ohiturak aldatzea: Eskaintzaren aldetik soilik ez, eskariaren bidez ere sustatu behar da jarduera ekonomiko eta sozialaren deskarbonizazioa. Ohitura eta portaera batzuek energia eta materialen murrizketa garrantzitsuak ekar ditzakete: komertzio-eredu txikiaren alde egitea, dieta osasungarriak bultzatzea, garraio- eta aisialdi-eredu jasangarriak sustatzea, etab. Beharrezkoa zaigu erosketen gurtzarekin bukatzea.
5. Inbertsio publikoaren lehentasunak birdefinitzea: Herritarren segurtasuna bermatzeko ezinbestekoa den inbertsioa lehenestea, errendimendu soziala ondo justifikatuz. Errendimendu sozial justifikatua ez duten azpiegitura handiei moratoria ezartzea. Izan ere, halako azpiegiturak ezinbestean atzean utzi beharreko garapen-eredu fosilistakoak izateaz gain, ezin dugu ahaztu garai ekonomiko berri batean sartu garelako zeinetan baliabide ekonomikoak urriak izango diren.
6. Isuri urrikoak diren eta eraldaketa ekosozialaren ikuspegitik potentzial handia duten enpleguen sustapena (nekazaritza eta elikagaien sektorea, basogintza, energia berriztagarriak, zaintza, etab.), eta, horrekin batera, egungo produkzio-sistemako hainbat sektoreen (oil&gas, automozioa, aeronautika, etab.) eraldaketarako industria-politika aktiboa.
7. Energia berriztagarrien hedapen demokratikoa. Energia berriztagarrien ekoizpen-azpiegitura orok honako ezaugarriak bete ditzala:
  - I. Euskal Herriaren beharrezko energetikoei begirakoa behar du, ekoizten den energiaren baliokidea eskainiz herritarrei eta bertako ehun produktiboari.
  - II. Autosufizientzia konektatuaren eskeman oinarritu behar da (ahal den guztia ahalik eta gertuen, autokontsumoa hartuz oinarri: goragoko eskaletako proiektuek beheragoko eskalen autosufizientzia osagarritzeko helburua izan behar dute).
  - III. Prezio justuak eskaini behar ditu, herritarrentzat eta enpresentzat eskuragarriak.
  - IV. Kontrol publikoa bermatzen duen mekanismo bat egon behar da, jabetza publiko-komunitarioa baimentzen duen eredu baten baitan.
  - V. Inguruneko kapital naturala emendatzeko ekimenen eskutik etorri behar du.
  - VI. Herritarren oniritzia izan behar du.

7. Herri gisa dugun bigarren dependentzia handiari aurre egitea: elikadura dependentzia. Elikadura-sistema propio eta jasangarri bat sendotzeko herri-estrategia bat erditzeko garaia da. Estrategia honen baitan landa-eremuaren despopulazioari aurre egiteko berariazko politika publikoen garapena (erosketa publikoak babestutako agroekologia, kasu), landa-eremuaren garapen endogenoa bultzatuz.
8. Landa- eta baso-lurren antolaketa, zaintza eta erabilera jasangarria egitea: Naturguneak babestuko dituen lurralde-planifikazio zorrotza; energia berriztagarrien hedapena ekintza multifinalista izan dadila, birgaitze ekosistemikoa ekarriko duena (besteak beste, basogintza-eredu berri baten eskutik, Bizkaia eta Gipuzkoako basoen birgaitze ekologiko masibo bat gauzatzea, monokultiboarekin bukatuz); uraren ziklo osoaren zaintza; baso- eta landa-lurrak bete behar dituzten funtzio eta erabilera jasangarri desberdinak aztertuta antolatzea eta horren arabera politikak publikoak garatzea.
9. Lanaren eta enpleguaren banaketa. Zaintza-sistema publiko-komunitario batek zaintza-lanak eremu pribatutik publiko-komunitarioa eraman behar ditu, emakumeen bizkar gainetik kenduz, zaintza-lanak duinduz eta modu justuan banatuz. Soldaten debaluaziorik gabeko 32 orduko lan-asteak balio behar du lana eta enplegua banatu eta biziera jasangarriagoak erdies-teko. Soldata duinen aldeko borroka eskutik behar ditu plan zehatzak soldata horiek kontsumo handiko bizierak ekar ez ditzaten, adibidez, produktu eta zerbitzu kutsatzaileei zergak igotzea.
10. Ekonomia zirkularra erdigunera ekartzea, murrizpen, berrerabilpen eta birziklapen politika sendoak artikulatuz, eta hondakinak kudeatu eta birbaloratzeko azpiegituren plan integral bat osatuz. Halaber, material kritikoen berreskurapenean eta ekodiseinu efizientean indarra egitea, eta ondasun komun analogiko eta digital berriak sortzea, jada ekotzitakoaren erabileran oinarritutako partekatze-ekonomia erraztuko dutenak.
11. Fiskalitate berri bat martxan jartzea. Fiskalitate progresiboagoa, Europako presio fiskalarekin berdinduko gaituena eta eraldaketa ekosozialaren aldeko politikak bultzatuko dituen kontrakoie oztokoak jartzeaz batera: Ondare handien gaineko zerga, enpresa energetikoen eta bankaren gaineko zerga, luxuzko emisioei tasak eta kanonak, karbonoaren gaineko zerga errenta klimatiko birbanatzaile bati lotua, gehienezko soldata, etab.
12. Osasun-sistema publiko integrala bermatzea, ikuspegi klimatiko eta ingurumenezkoa integratuko duen lehen arreta indarberritu bat oinarri hartuz, zeinak lehen mailako garrantzia izango duen klima-larrialdiaren garaian.
13. Industriaren deskarbonizazioa bultzatzea: Efizientzia eta aurrezpena produkzio-prozesuetan, autokontsumoa, prozesuen elektrifikazioa, bero-hondakinen aprobeitxamendua, bide-orri sektorialak, langileen desplazamenduetan isuriak murrizteko planak, etab.

14. Etxebizitzen, zerbitzu pribatuen eta eraikin publikoen kontsumo energetikoetan eragiteko plan estrategiko bat gauzatea eraikinen birgaitze energetikoa, berokuntza-sistemen elektrifikazioa eta autokontsumo indibidual eta kolektiboa garatzeko erraztasunak eta baliabideak eskainiz, zeinak herritarren ongizate energetikoan eragin zuzena izango duen.
15. Mugikortasun-eredu berri baterako trantsizioa azeleratzea: Doako garraio publiko kolektibo kalitatezkoa, garraio publikoa lehenesteko politikak, hiriguneetan motordun ibilgailuen erabilera murrizteko hirigintza, salgaiak garraiatzeko trenaren aldeko apustua, elektrifikatu ezin daitekeen garraiorako alternatiba energetikoak, mugikortasuna ibilgailuen jabetzatik zerbitzu gisara ulertzerako trantsizioa.
16. Jasangarritasun klausulak sartzea erosketa eta kontratazio publikoetan: Kontratazio publikoak duen trakzio-gaitasuna aprobetxatu behar da ekonomia deskarbonizatu batera eramango gaituzten eraldaketak sustatzeko, berreskuratutako materialen erabileraren sustapenean, energia berriztagarrien kontsumoan edo gertuko elikagaiak hornituko dituzten zerbitzuen kontratazioan arreta jarritz.
17. Kontabilitate nazionalaren erreforma ekologikoa ongizatea neurtzen duten ongizate-adierazle berriak txertatuz, Barne Produktu Gordina (BPG) adierazle gisa alboratuz eta kontabilitate monetarioaren ondoan adierazle biofisiko eta sozialak gehituz.
18. Eraldaketa ekosozialak behar duen arte eta kultur ekoizpena bultzatzea: Zinea, literatura, antzerkia... Arte adierazpen desberdinen bidez eraldaketak behar duen narratiba osatu eta borroka kulturala egitea ezinbestekoa izango da, eraldaketaren borroka-zelai nagusietakoa ezinbestekoa zaigun iraultza kulturala izango baita.
19. Krisi klimatiko-ekologikoaren testuinguru historikoa kudeatuko duten pertsonak heztea, kultura zientifikoan sakonduz, zentzu kritikoa sortuz (kontzientziazioa, sentsibilitatea, egokitzeko gaitasuna, balio berriak onartzea, baliabide material eta energetikoen erabilera arrazionala erdiesteko gure portaeretan eta kontsumo-ohituretan aldaketak behar direla ulertzea eta onartzea) eta deskarbonizazioarekin lotutako eremu desberdinetan beharko diren profesionalak formatuz.

Hogei bektore eraldatzaile proposatzen ditugu, eta uste dugu orain erronka bektore hauek politika publikoetara itzultzea dela. Eta horretarako, inoiz ezagutu ez den inteligentzia kolektiboaren aktibazio handiena beharko da, Euskal Herriko gaitasun zientifiko, instituzional eta sozialen aurrerik gabeko aktibazioa behar dugu. EH Bildu tresna eraginkorra izaten ahaleginduko da zentzu horretan.

Intelligentzia kolektiboaren aktibazioaz gain, funtsezkoa izango da herritarren parte-hartzea. Eraldaketa ekosozialak erdiz erdi eragingo dio gure lurraldeari eta garapen-ereduari. Gure gizarte-antolamenduaren atal asko, ehun produktiboa eta ohitura sozialak aldatu beharko ditugu testuingu-

ru historiko berrira egokitzeko, eta horrek garapena ulertzeko oinarri berriak finkatzea eskatzen du, gizartearekin modu partekatuan egin beharreko zerbait.

Uste dugu deliberazio herritarraren bidea hartu behar dugula horretarako. Gure proposamena da datozen hilabeteetan deliberazio-prozesu herritarrak abiatzea Euskal Herriko eskualde guztietan. Klima-asanbladaren proposamena metodologikoki osagarritu eta ariketa hori eskualde guztietara jaisteko unea dela deritzogu. Eskualde mailako deliberazio-ariketa horiek lurralde-eremuko eskalan (Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa) egin beharreko deliberazio-ariketekin osagarritu beharko liriateke, behetik gorako deliberazio-ariketak goitik beherakoe-kin uztartuz. Deliberazio-prozesu horien emaitzak jarriko luke datozen urteetan egin beharreko eraldaketaren lurzorua eta iparra.

Eraldaketa hau gure gaitasun guztiakin martxan jartzeko Euskal Herriak gaur ez duen burujabetza politikoa behar du. Eraldaketa ekosozialaren zein trantsizio energetikoaren gako handietako bat autosufizientzia da, lurralde buruaskiangoetarantz egitea. Burujabetza datorkigun aro berriari modu adimentsu, planifikatu eta justuan erantzuteko bidea da, hain zuzen ere. Trantsizioarekin lotutako politika publiko asko bertan erabakitzeko tresneria juridiko-politikoa eskura behar dugu beraz, jakinik politika publiko horietako askoren matrizea maila globalean ezarri beharrekoa dela hein handian.

**Euskal Herrian, 2023ko maiatzaren 5ean**